ESKOLA 2.0

2.GELAKO IKASTE- EGOERAK: LANAREN KUDEAKETA			
ATAZAK	**JARDUERAK**	**BALIABIDEAK ETA APLIKAZIOAK**	**ORIENTABIDEAK**
2.1.Egunerokoak autoerregulaziorako tresnatzat (gela, taldea, banakakoa)	**2.1.-Planifikazioa:** -**Gelakoa**: unitate/ sekuentziaren planifikazioa ◆ lortu nahi duguna ◆ ikasiko duguna ◆ egingo ditugun atazak/jarduerak eta taldekatze erak ◆ egingo ditugun ekoizpenak ◆ denboralizazioa ◆ ebaluazioa -**Taldekoa**: atazaren planifikazioa ◆ egingo ditugun jarduerak, arduradunak (atazaren ardurak eta kudeaketaren ardurak -planifikazioa, koordinazioa, bozeramailea, materiala, idazkaria), denboralizazioa, baliabideak eta beharrak -**Banakakoa:** banakako jardueren planifikazioa ◆ zer egin behar dut, noizko, baliabideak, beharrak	-Gelako **Google Sites** batean dena integratuta: Gelakoa, taldeena, banakakoa • **Web Tutorial de Google Sites** • **Guía Rápida de Google Sites** eta **Manual Google Sites** (zehaztapen gehiagorekin) -**iGoogle**-n gauza batzuk integratuta • **Gadget sozialak** • **Tutorial animatua** 1.Dokumentuak: - Word, OpenOffice (testua, taulak...) -**Google Docs** (elkar-lanerako dokumentuak) -**Google Grupos** (eztabaidak...) • **Tutorial Google Grupos1** • **Tutorial Google Grupos2** 2.Denboralizazioak: **Google Calendar**	**1.Zergatik Google-Sites?** -Google Sites-ek wiki baten antza du: gauzak antolatuta izateko egokia -Google Docs-en dauden aukerak integratzeko erreztasuna -100Mb onartzen ditu -Hoberena: beste aplikazio batzuekin dokumentuak igotzea eta Sites-en estekak erabiltzea **2.Wiki edo Site?** 1-**Wiki** baten antolakuntza erreza, 2 Gb baina..publikoa (pribatua izateko, ordaindu behar) 2-**Site**, aukera zabalagoa, , pribatua zein publikoa, baina…100 Mb, erabilera konplikatuagoa **3.Wiki ala bloga?** -**Bloga** berriak emateko eta ikasleen ekoizpenak argitaratzeko egokia da. -**Wikian** idatzitakoa antolatuago dago. Artxiboak igotzea posible du. Biltoki bat da eta fase honetan (lanaren kudeaketan) blogak baino aukera egokiagoa ematen du. **4.Prozedurarako proposamenak** -Irakasleak gelarako Google-Sites edo Wiki bat

			irekitzen du -Eguneroko bakoitzarako orri bat (Gelakoa, taldekoak, banakakoak) -Talde eta banakako orrietan, azpi-orriak (talde bakoitzerako eta ikasle bakoitzarentzat) **5.iGoogle** -Besteak baino sinpleagoa, ez dauka hainbeste aukerarik, baina Interneteko hasiera orri moduan erabil dezakegu eta hor, hegaletan antolatuta, planifikatzeko egiteke daukaguna, Gmaila, Google Docs, Calendar, ikasleen urtebetetzeak, egiteke daukaguna (eta hainbat gadgetak) izan ditzakegu ere -**Gadget Sozial**en bitartez informazioa konpartituta izango dugu (Egiteke zerrenda, adibidez) **6.paperezkoak edo digitalak?** **6.1-**orokorrean, printzipio bat izan behar dugu buruan: zer erakartzen digu digitalak paperezkoarekin lortuko ez duguna? Beraz, ekarriko digun onurak egin beharko dugun ahalegina ***merezi du***? **6.2.-** Aipatutako aplikazioen artean, bat aukeratzea baino ***batzuk konbinatzea*** hobe izango da **6.3.- Digitalaren abantailak**: -ikasleek/irakasleak edozein momentutan eta edozein lekutatik kontsulta dezaketela -Irakasleak, zuzentzeko, ez ditu koaderno guztiak eraman behar -elkarren arteko ebaluazioa egiteko, errazagoa

			-Elkarren arteko lana bultzatzeko, errazagoa (denon eskura dago feedbacka emateko, dokumentu konpartitua…) **6.4.-Digitalaren desabantailak**: -irakasleak aplikazioak menperatu arte, konplikatuagoa -Pribatua ala publikoa: erabiltzen dugun aplikazioa eta zertarako erabili ondo aztertu behar da. Irakasle eta ikaslearen arteko komunikabidea eremu pribatuan utzi behar delako. -Denbora falta: planifikazioa sakonagoa izan behar da. Honek gure lana hobetuko du, baina hasieran, denbora gehiago eskatuko du ere
	<u>2.2.-Jarraipena:</u> **-Gelakoa:** ◆ gelako beharrak adierazteko ◆ komunean jartzeko ◆ ekoizpenak batzeko **-Taldekoa:** ◆ Irakasleak taldeen lanaren jarraipena egiteko ◆ irakasle eta taldeen arteko komunikaziorako bidea ◆ taldearen beharrak adierazteko **-Banakakoa:** ◆ Irakasleak ikaslearen lanaren jarraipena egiteko ◆ irakasle eta ikaslearen	-dokumentu konpartituen bitartez (**Google Docs**) -**arbela digitala** erabiliz (talde handian) -**gelako blog**ean edo **Google-Sites** -**Google Grupos**: eztabaidak -**Txata:** bapateko zalantzak beste ikaskideekin argitzeko -e-mailez (**Gmail**)	**1.Prozedura:** • Eztabaidak bideratzeko, Google Docs, gelako bloga edo Google Grupos erabili ditzakegu. • Ikasleek hor jarriko dituzte haien galderak, zalantzak, iritziak… edonork erantzuteko edo parte hartzeko • Irakasleak sortutako arazoak edo eztabaidatzekoa batuko ditu eta gelan talde handian komentatuko dute • Ahozko elkarreragina bermatuko dugu ere, baina aplikazio hau baliogarria izan daiteke eztabaidak bideratzeko eta ikasleen arteko beste elkarrekintza mota erabiltzeko. **2.Txata** Ikasleak taldeka lan egiten duten bitartean, zalantzak irakasleari galdetu baino lehen, txataren bidez (Gmail irekita izatekotan

	arteko komunikaziorako bide bat (elkarrizketen erregistroa, oharrak…) ◆ ikaslearen beharrak adierazteko		adibidez) beste taldekideei galde diezaiekete gelatik mugitu gabe.
	2.3.-Ebaluazioa: **-Gelakoa:** unitate/ sekuentziaren ebaluazioa ◆ helburuen lorpen maila ◆ ikusitako edukiak ◆ egindako atazak ◆ eratutako taldeak ◆ denboralizazioa ◆ sortutako arazoak ◆ gaiaren interesa ◆ jarraitutako prozedurak ◆ proposamenak **-Taldekoa:** taldearen lanaren ebaluazioa ◆ lanaren kalitatea (antolakuntza, partaidetza, erabilitako baliabideak, lana aurrera eramateko estrategiak, sortutako arazoak) ◆ ekoizpenaren kalitatea ◆ ikasitakoa: talde moduan erabilitako estrategiak ◆ proposamenak **-Banakakoa:** ◆ ikasi dudana ◆ dauzkadan zailtasunak ◆ proposamenak	-**Google Docs** : dokumentuak, **formularioak**, ebaluazio tresnak ipintzeko (*Curso CPR Coria*) -**Google Grupos** (eztabaidak…) -elkarren arteko ebaluazioa egiteko arbela digitala erabiliz -Google Docs (dokumentuak, formularioak)	**1.Formularioak eta ebaluazioa** Google Docs-eko formularioek hainbat erabilera dituzte: • inkestak egiteko (umeen artean, gurasoen artean, ikas komunitatean…), proposamenak jasotzeko, asetze maila adierazteko… • on-line azterketak • auto-ebaluazioak • talde-ebaluazioak **2.Pribatua ala publikoa: ze aplikazio erabili ba?** -Ikasleen lanak ***publikatzeko*** eta familiei berriak emateko: bloga, Google Site edo wikiak -***Gelan lan egiteko***: ikasle eta irakaslearen arteko tresna. Google Docs (eskaintzen duten guztiarekin) + Google Site pribatua (konbinatuta) -***Ikaslearen portfolioak***: pribatua . Irakaslearekin konpartitua (bion artean egindako elkarrizketak, lanaren ebaluazioa…). Google Docs + ikaslearen Site (edo iGoogle). Ekoizpenak, beste aplikazio batzuetan publikatuta (Slideshare, Glogster, Picasa, Youtube…) eta hemen estekatuta. **3.orduan zer ireki gela bakoitzean?** -gelarako Google kontu bat + blog, Site edota wiki bat + iGoogle. Ikasle guztiok erabiltzailearen izena eta pasahitza ezagutuko

			dituzte. -ikasle bakoitzarako Google kontua + iGoogle edota Google Site pribatua
2.2.Banakako portfolioak, autoerregulaziorako tresnatzat	- Nire arloko gustoko ekoizpenak (idatzizko ekoizpenak, argazkiak, grabaketak…) -borradoreak -irakaslearekiko elkarrizketen akta -banakako egunerokoa (ebaluazioak, ikaste-estrategien gogoeta, zailtasunak, proposamenak) -ikaste-kontratuak	-Gelako **Google Sites** batean ikasle guztien portfolioak integratuta -Ikasle bakoitzak bere Google Sites, bere **bloga** edo **iGoogle** 1.Testuak: - Word, OpenOffice (testua, taulak…) -**Google Docs** (irakaslearekiko dokumentu konpartituak) 2.Ikus-entzunezko materialak (Picasa, YouTube…) eta Sites-ean estekatuta.	**1.Eragozpenak**: konfidentzialtasuna (segun ze tresna erabili, idazten duguna publikoa izango da)
2.3.Ikasten ikasteko tresnak	• Datuak biltzeko taulak • Informazioa antolatzeko taulak • KWL taulak • Kontzeptu- mapak eta antolatzaile grafikoak • Grafikoak: barra diagramak, tarta-diagramak • Kontrol- orriak	**Egiteko:** -Text2mindmap, Freeplane, Xmind (mapa mentalak) -Antolatzaile grafikoak: http://freeology.com/graphicorgs/page/4/ - Word, OpenOffice Writer, Google Docs (testua, taulak…), -kalkulo orriak (Excel, Open Office Calc, Google Docs) **Argitaratzeko:** -eskolako wiki/bloga -gelako wiki/bloga -gelako Google Sites	**1.Informazioaren trataerarako tresnak:** Iradokizun interesgarriak ikus ditzakezue "Informazioaren trataera Ikasgelan"dokumentuko "Informazioa aukeratzea eta prozesatzea"atalean **2.KWL taulak:** Ingelesez ateratako tresna. Aurre-ezagupenak (K: zer dakit), ikasi nahi dudana (W) eta gaia bukatzen denean zer ikasi dudan (L) adierazteko. **3.Zer argitaratu?** -Aipatutako tresna gehienek bakoitzaren barneko prozesuak laguntzen dituzte. Eremu pertsonalean mugitzen garenean ez litzaiguke interesatuko argitaratzea (Google Docs batean egon daitezke irakasleak ere jarraipena egiteko). -Taldearentzat baliogarriak direnean, edo txantiloi moduan eskaintzeko, gelako blog/wiki/Sites-ean argitaratuko dira.

IRAKASLEEN MAILA KONTUTAN HARTUTA, NONDIK HASI?

Dokumentu honetan aurkezten diren aukerak gaitasunak garatzen dituen metodologian oinarrituta daude. Ikastetxeetako irakasleen artean maila ezberdinak aurki ditzakegu, bai gaitasunen garapenean baita IKTen erabileran ere. Ikasleek lanaren planifikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen dutenean, bere ikasketen erregulazioan eragile-papera hartzen du eta autonomia eta ikasten ikasteko gaitasunak garatuko dira. Kasu hauetan, ikasketa dialogikoak garrantzi handia du: ikasleek elkarrizketaren bitartez besteengandik eta besteekin ikasten dute. Beraz, gizarterako gaitasuna ere garatzen da (talde handian, talde txikian, irakaslearekin) eta Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna prozesu osoan egongo da presente. Teknologia erabiltzen badugu, gaitasun digitala ere ziurtatuko dugu. Hori guztia kontutan hartuta, ondoko taulan nondik hasi eta zer garatzeko iradokizun batzuk eskaintzen ditugu. Edozein kasutan, argi dago formakuntza jaso beharko dela gauza berriak erabiltzen hasteko.

IRAKASLE-EGOERA	ZE MOTATAKO ATAZAK ETA ERABILIKO DIREN APLIKAZIOAK
-Gaitasunak garatzen eta IKTak erabiltzen esperientzia gutxi	-Oso gauza sinpleekin hasteko, kainoiaren bidez (edo arbela digitalaz formakuntza egin badute) gaia/sekuentzia/ataza ikasleekin komentatu eta aukera eman proposamenetan parte hartzeko. -Word edo Open Office erabili dokumentuak idazteko, taulak, kontrol orriak betetzeko…. -Taldearen lana antolatzeko, ebaluatzeko eta auto-ebaluaketa egiteko eginda dauden txantiloi batzuk hasi erabiltzen (formatu digitalean). -Google Calendar denboralizazioa planifikatzeko
-Gaitasunak garatzen nahiko esperientzia baina IKTak erabiltzen esperientzia gutxi dute	-proposatutako jarduerak ziur aski (planifikazioa, talde lana, jarraipena eta ebaluazio faseetan) egin dituztela. Beraz, erabilitako dokumentuak formatu digitalean hasiko gara erabiltzen (Word, Open Office). -Aurrekoan bezala, kainoia/arbela digitala erabili talde handiko lanak bideratzeko. -Google Calendar denboralizazioa planifikatzeko -Wiki bat ireki eta talde bakoitzari orri bat ematen ikasiko luke
-Gaitasunak garatzen esperientzia gutxi baina IKTak erabiltzen ditu	-IKTak maneiatzen baditu, ikasleak planifikazioan, lanaren garapenean eta ebaluazioan rol eraginkorra emateko aholkularitza beharko luke, baina aipatutako aplikazioak erabiltzeko gai izango zen.
-Gaitasunak garatzen eta IKTak erabiltzen maila ertaina	-Aurrekoan bezala, gaitasunak garatzeko alderdiren batean aholkularitza beharko luke. -kainoia/arbela digitala talde handiko lanak garatzeko -Google Docs-en aukerak erabili (testu dokumentuak, formularioak) -Google Calendar -Wikia -Gelarako Googleko hasiera orri pertsonalizatua (iGoogle) irekitzen du
-Gaitasunak garatzen eta IKTak erabiltzen esperientzia handia	Aipatutako jarduera guztiei aurre egiteko gai eta aipatutako edozein aplikazio erabiltzeko gai